

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketarako laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak, 2024-2025 ikasturtea

BDNS (Identif.): 769223.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/769223>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Deialdia hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak artatzen dituzten elkartei zuzentzen zaie berariaz; irabazi-asmorik gabeko elkarte izan behar dute elkarte horiek, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkartei laguntzea, bai bazkideei edota horien senitartekoei zuzendutako hezkuntza proiektuak antolatzen eta kudeatzen, bai ikastetxeetako ikasleei edota horien familiari edo irakasleei zuzendutako jarduketak antolatzen eta kudeatzen; betiere, Vitoria-Gasteizen esparruan eta 2024-2025 ikasturtean pertsona horiek eskolan edo gizartean integratzeko bidea sustatu behar dute jarduketa horiek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 31n onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

20.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2024ko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 31

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA